

daritza:

A. Garate Unanue  
A. Miner Golekoetxea

Banategi ta diru-eragintza:

Goiz-Argi  
Calle Guebaria, 21-bajo  
SAN SEBASTIAN

IRARKOLA: Arantzazu

Deposito Legal: S. S. 1078-1959

# Laister Gabon

Deba'n, ikastolako Zuzendaria dan Egañatar Belen'ekiñ azkena itz-egüñ nuanean, ikastolako liburategitik, liburuxko polit bat eman zidan, "Olentzaro" izenduna, Jazinko F. Setien'ek idatzia, Inaki Beobide'ren babespean.

Argazki ederrak ditu, papera oso ona "testoa" gustagarria; itz batean esateko neri guztiz atsegin izan zait "Olentzaro" ta neure erriko, eta neure umearoko Gabon-ak oroitu dizkidalako. Poz-ozik zertxo bait "Goiz-Argi'n" esatea gogoratu zait. Neure erriaren izena, (Zarautz, Donostia, Oiartzun, Andoain, eta abar irakurri ditudan lerroan) egon ez dalako.

Biotzean naigabe bat nabaitu det, Zumaya-  
ren izenik ez ikusteaz.

Aspaldiko urteetan ez naiz Gabon'etan Zumaya'n izan. Gerrate aurretik izan nintzan azkena, neure gurasoak bizi ziralarik. Baiña nere bizi guztiko Gabon'ak baiña askoz ere maiteago ditut, eta biotz garauntan askoz obeto itzatzia, nere txikitako Gabon'ak.

Ama zenbat lo eginda dira Gabon'ak? amaxori galdetzen genionean, eta anak. Enel oraindik lo asko egiñ bear dezute, ija illabete paltada-ia. —Ama eta aita etorriko al da? —Bayetz uste det, egualdi onak izaten ba'dituzte heintzat.

Aita, Gabon'etarako etxeratsen ba'zan, ayekek izaten ziran Gabon'ik onenak.

\* \* \*

Erriko ume geyenak, goizean asi ta, ilun-teraino eskean ibiltzen ziran etxex-etxe, aurrieraz ondo garbitu ta plantxatutako puntilladun buruko azal (funda de almohada) zurriak bizkarrean zituztela. Etxe danetan "Aimaria! (Ave Maria) Jesus'en eskia" esaten zuten, eta ematen ziotena, dirua ba'zan, sakelxo batera bota, eta intxaurrak, gaztañak, piko-matatuak (higos, pasos) sagarrak eta abar ba'ziran, burko azalara.

Illuntzen "Jayotxa'k" ertetzen ziran, asko, kale danetan ziran bada iru edo lau Jayotza "Nacimiento" bata baiña bestea ederragoak, bi illabete aurretik Zelaispi'n batutako zozobelar ederrakaz mendiak eginda, elurra ber-  
ritz (Belen'en sekula inork ikusi gabeko elurra) agi iriñakaz, eta Belen'go ardi, artzai, andre, ume eta abar... bai zituzten beuren akataz... batek beso bat palta, beste batek eskua, beste batek oiñ biak baiña uskeri abek erraz konpontzen ziran argizariakaz. Eleiza'ra eramaten zan pildumenari pusketa bat kenduaz.

Burua bere lekuan ipintzeko, osatebakun-  
lza egindako "piura" danak lepoan, argizari-  
ak utzitako kollareak izaten zituzten, naiz  
gizaseme naiz emakumeak. Baiña ala ere,  
ayekek zira ayekek "Jayotza" ederrak!! Urtean-

urtean argizariaren arrasto gabeko bi edo iru "piura" berrirekiñ ornituak.

Guk ez genduzan inoiz-iz-inoiz ikusiko Kostantinoplia'ko Santa Sofia' eleiza, eta Erroma'ko San Pedro, baiña ikusitaere zer? A zer gauzak!!! Zumaya'ko Gabon gabeko "Jayotzarekiñ" berdintzeko.



Gaiñera, erri guztiko "Jayotza" ederrean, neskatxoentan beñepen gure kalekoak, San Telomo kalekoak. Ori gauza jaiña.

Mutilletan berriz audienta ta ederrena Balenziaga'nekoa. Aita artotz ona zuten, eta ayaen, "Jayotza'k" Herodes'en Jauregia'k eta danak zituan, eta abestiari danborrarekiñ laguntzen zioten.

Ura arrada egiñ oi zigun biotzak, talde osoak abestutzen zuanean

"Isaies igarle  
Igarle audia,  
Esaten zuena zala  
Guztia egia.  
Munduan izango zala  
Birgiña Maria,  
Semea izan da gero  
Dontzeilla garbia".

Eta batek bakarrik abestutzen zuanean, artzai baten pena, ezertxo ere ez zekarrelako Ume Jesus'entzat.

"Opiltxo eder bat erre berria  
Emen nekarren Zuretzat" (2 bider).  
"Jaun Zerukoak barka nazazu,  
Nunbait bidean galdu zait" (2 bider).

\* \* \*

Zumaya'ko Gabon'etan "Olentzaro'ri" ere abestutzen zitzaion nexka ez, mutilak bai-  
zik eta abek (mutillak alegia) uste dut, (us-  
teak erdia, ustela du baiña) etxeetan "Olen-  
tzaro'n" abestirik ez zutela abestutzen, sa-  
gardotegian eta ardoteagian atean baizik.

**DANAPAK**  
PLASTIKUSKO ZORRO eta ZAKUAK

Nai d'izun bearran...  
laboreak erabili ta gordetzeko

**DANAPAK**  
Calle Juan de Bilbao, 13 bajo  
DONOSTIA

**AITE**  
**OPARIAK**

Victor Pradera, 2 DONOSTI

Nik neuk, bi abesti bakarrik dazkit, "Olen-  
tzaro'renak" eta emen idazten ditut. "Biak  
doñu ezberdiña dute".

- 1) "Olentzaro" gabian,  
Eskailburutzoko batian, an an!  
Otarra bete gaztaña  
Lukainkatxo bi gainean, an, an, an!  
Binuan-bin San Juakiñ  
O pastores, o señores,  
Erdiko kaleko Mariya,  
Egiñ guretatz ogija aaaaa!
- 2) "Olentzaro" buru aundi  
Nun arrapatu dek arrai ori?  
Bart arratzeko, ordu bijetan  
Itxasoaren erdijan! ananan!

\* \* \*

Biotza lodi-lodi jarri zait oroi-  
pen abek danakiñ, eta ezin jarrai neza-  
ke. Negar egiñ bea-  
rean naiz, beztela lertu egingo nintzake-  
ta.

Ail gaur eguneko eskuldun umetxoak! Ez  
dezute guk bezelako aurtzaro zorionekorik  
izan!

AZPEITIA'TAR JULENE  
(Eskauriara'ren alarguna)

## MAI-ONA



## SAGARDOA